



3 GIZARTEA

Kultur egitarau oparoa herrian udazkenerako

Udaleko Kultura saileko arduradunek udazkenean herrian izango diren kultur emanaldien egitaraua aurkeztu zuten ostiralean. Bi gauza azpimarratu nahi izan zituzten bereziki, bateti, ostegunetako filmak igandean ere errepikatuko direla aurreko urtean egin bezala, eta bestetik, azaroko antzerki eta dantza emanaldiak nabarmendu nahi izan zituzten.

4-5 ELKARRIZKETA

Izaskun Urdanpilleta liburutegizainarekin hizketan

Urte asko daramatza Izaskun Urdanpilletak liburutegiko arduraduna izaten, sortu zenetik. Lasarte-Oriako liburutegiaren bilakaera lehen pertsonan bizi izan du, tartean milaka bizipen, Zumaburuko baxuetako liburutegiaren lekualdatzea, azken urteotako garapen teknologikoa... Horretaz gain, lasarteoriarek dituzten irakurketa ohiturez eta erabiltzaileek dituzten jokabideez aritu da besteak beste.



Stock azokan mauka onenaren bila

Herritar askok egin dituzte erosketak Aterpeak antolatutako azokan

Bosgarren edizioa izan du aurtengoan Aterpea Merkatarien elkarteak antolatzen duen Stock eta saldoen azokak. Aurreko urtean Loidi Barrengo pilotalekuan egin ostean, Okendo plazan ezarri nahi izan dute antolatzaileek karpa erraldoia, herritarrengandik gertuago egon asmoz. Eguraldi txarrak zenbait buruhauste eragin badizkie ere, asteburuaren balantze positiboaren balantze positiboak egin zuten antolatzaileek.

Soineko eder bat prezio erdian, umeentzako arropa merke-merke, galtzak %70eko behearenarekin.. Gisa honetako aukerak izan zituzten herritarrek larunbata era igandea bitartean Okendo plazan jarritako Stock eta saldoen azokan.

Prezioen erakarpena

Herriko merkatariek dendetan saldu ez dituzten produktuei aterabide bate eman asmoz antolatzen dute azoka. Horregatik izaten dira prezioak hain merkeak eta karpara sartzen ziren asko esku artean zer edo zer zuela iritetzen ziren.

Euria protagonista

Larunbatean eroritako euri jasek Okendo plaza putzuz bete eta karpa bera urak hartu zuen zenbait saltzailearen generoa busti eta hondatuz. Antolatzaileen hitzetan, horixe izan zen asteburuko ezbehar bakarra eta Okendo plaza



Jende askok bisitatu du Aterpeak Udalaren laguntzaz antolatutako V. Stock eta saldoen azoka, urteroko goranzko joerari eutsiz.

gaizki egina dagoela usteta, soluzioaren bat exijitu zuten.

Aterpearen balorazioa

Pozik zeuden Aterpeko kideak igande arratsaldean azoka itxi eta balorazioa egiteko unea iritsi zenean. Jenni García lehendakariaren hitzetan,

bai saltzaile, erosle zein antolatzaileek "inpresio onarekin" utzi zuten azoka.

Guztira 17 komertzio izan dute postua Okendoko azokan: herriko zortzik, Gipuzkoa osotik etorritako sei eta Bizkaiko hiruk: "Jende asko etorri da azokara,

eta orokorrean ondo saldu dutela esan digute merkatariek", zioen Garciak. Bestalde, umeek euren txokoa izaten jarraitu dutela eta Loidi-Barrenetik azoka Okendora ekartzeak "eragin positiboa" izan duela azpimarratu nahi izan zuen.

Urriaren 5ean, 21:00etan

BERTSO-AFARIA

Arrieskalleta elkarte

ANTOLATZAILEAK:

Menua: Txerrikoa, entsalada epela, saiheski konfitatua, txirikorda izozkiarekin, kafea eta pattarra

25 euro

HITZAREKIN JOLASEAN MUSIKAREN KOLORETAN

Uxue Alberdi eta Jon Maia
Ken Zazpi taldeko
Eñaut Elorrietarekin

Adituak dio



Sebastian Kerejeta

Omenaldiko antolatzaile ohia

Auzolanean

A din nagusiko herritarrei egin ohi zaien omenaldia dela eta beti gogora etorritzen zait nik hain atsegin dudan auzolana. Haur denboratik ikusi nuen ohitura hori nire inguruan, baserritarren artean, eta txertatuta gelditu zitzaidan.

1970. hamarkadan hasita, hogeita hamar urtean jarraian, gure herrian, igandean, adin nagusikoei egiten zaien omenaldian antolatuta eta burutzen ziren lan guztiak auzolanean egin ziren. Laurogei herritarretik gora parte hartzen zuten, muxu truk, irria ezpainetan, goizean hasi eta ilunabar arte. Gazte eta heldu, denak preste gure zaharrei egun alai eta atsegin bat pasarazteko.

Nahiz, egun horretan helburu guztiz nagusia jende zaharra pozik ikustea eta beraiei herritarren esker ona eskaintzea zen, beste alde on bat ere batzuen, alegia, elkarrekin beste ezaguera-rik ez zuten laurogei herritarren arteko harreman ona sortzea eta sendotzea.

Entzun dudanez, berriz ere, bide horri heldu nahi zaio, eta, nire iritziz, egoki litzateke.

Gure herrian badaukagu antzeko eredu bat miresgarria eta jarraigaria dena, laster ospatuko den Euskararen Maratoia alegia.

Bukatzerako, orain berri zendu zen, eta auzolanean eredu izan zen Peio Artetxe herritarra gogora ekarri nahi dut, hainbat lekutan muxu truk jota ke haritzeaz gain gure herrian ere euskararen alde hamaika lan eginda joanda. Goian bego.

Zaharren omenaldia eta krisia

Gaur hasiko dituzte Biyak Bat-en Zaharren omenaldien harira antolatutako ekintzak. Aurten aste osorako egitaraua prestatu dute martxa neurtua eta guzti.

Michelingo frontoian 1970. hamarkadatik egiten den bazkari handiak ere ez du hutsik egingo baina aurten lehen aldiz herriko jubilatuek 8 euro ordaindu beharko dituzte. Herriko elkarteak izan ziren bazkari, omenaldi hau antolatzen hasi zirenak. Herriko nagusiei opari moduko bat egitea zen bazkaria, aitortza bat. Elkarteek eurek prestatu eta zerbitzatutako bazkaria zen, auzolanean egindakoa. Aldiz urteek aurrera egin ahala, udalak bere gain hartu zuen bazkariaren antolaketak. Horrela catering enpresa bat kontratatu izan da bazkaria doan ematen jarraituta.

Garai oparoetan udalarentzat bazkariak eragindako gastua ez zen bereziki aipagarria gaur ordea, krisiak krisi, udalak ezin du, hala adierazi zuen, bere gain horrelako gastu potoloa hartu. Udal gobernua lehen saikera, hastapen horietara itzultzea izan zen. Herriko elkarteak bildu zituen ekainean ospakizuna berriro hauek hartzeko helburuarekin. Baina bilera hartatik ez zen baiezkorik atera eta ondorioz, udalak catering-a kontratatzen jarraitu behar duenez, bazkaria merke kobratuko du. Lehen urtez lekua mugatu da eta zortzi euro ordaindu beharko dituzte parte hartzaileek. Erabakiak askoren kontrako iritzia eragin arren, jendeak ulertu omen du. Udalak gastuak neurtzea ulergarria da baina pena elkarteekin adostasunik ez lortzea. Ea datorren urtean...

Hitz eta pitz

Parte hartzen al duzu nagusiendako antolatzen diren ekintzetan?



Eugenio Molano

Bazkaria sekulakoa da, ez dakit noiz hasi zen baina hamar urte baino gehiagotan joan gara. Konforme gaude. Aldaketa bat egon da aurten, lehen Udalak ordaintzen zuten guztia, orain guk ordaindu egin behar dugu, baina zaharrak gero eta gehiago izatearen ondorio da eta arrazoizkoa dela uste dut. Ondo pasatzen dugu bazkarian eta gero dantza ere egoten da, digeritzeko...



Teodora Prieto

laz haserretu egin nintzen txartelik gabe geratu nintzelako, denontzat ez badago inorentzat ere ez!, eta aurten ordaindu egin behar da... ba ez noa. 80 urte bete nitueanean jaso nuen lore sorta. Jokoan ere aritzen gara, txapeldun eta txapeldunorde izan naiz txintxonean. Lan asko egin dut jubilatuetan. Oso ondo pasatzen dugu hemen, gure bigarren etxea da. Harmonia ona dago.



Eloy Arroyo

Bazkarira ez goaz, baina ondo iruditzen zait. Egitarau osoa da zaharrentzat dibertimendua, polita da eta gustura hartzen dugu zenbait ikuskizun eta ekintza antolatzeko guretzat, baina bazkaria ordaindu beharra, ez dakit, 16 euro bikoteko askotxo da. Zortzietan laguntzat prestatu badute, eta ordaindu behar bada, hobe oker banabil, baina, uste dut lekua soberan egongo dela.



Jose Mari Bardaji

Lehen aldiz nagusiendako aste osoko egitaraua antolatu dugu, egunero dago zerbait, baina nik larunbateko martxa nabarmenduko dut: Itzulia egiteko denbora egokia finkatuko dugu eta gehiena hurbiltzen direnek sari ederak jasoko dituzte. Eta ea igandean ere, bazkalosteko dantza txapelketan, bikoteko ausartzen diren eta parte hartu. Ni aurten joango naiz lehenengo aldiz bazkarira.

Iruditan



1994. urteko Urriaren 16ko zaharren bazkaria Michelingo frontoian.

Zaharren omenaldia

Herriko elkarteak hasi ziren 1970. hamarkadan zaharren omenaldi hau antolatzen. Elkarteetako kideak arduratzen ziren janaria egin eta zerbitzatzeko, dena doan ematen zen. Nolabait herriko nagusiei egun batez zerbait berezia egitea zuen helburu bazkari honek. Ehunka lagun biltzen zituen bazkariak Michelinen eta egun nahiz eta jendetza bildu, gauzak aldatu egin dira. Udalak bere gain hartu zuen ospakizun hau eta enpresa bati eman zion janaria prestatu eta zerbitzatzeko ardura. Krisi garai honetan, aurten lehen aldiz 8 euro ordaindu beharko dituzte parte hartzaileek.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

KULTURA



Boris Nogales kultura saileko arduraduna, eta Xabier Goitia, Juntxi Ugarte eta Izaskun Urdanpilleta teknikariak prentsaurrekoan

Udalak udazkenerako kultur egitarau zabala iragarri du

Azaroan Glu-Gluk bake negoziazioei buruz prestatutako lana eskainiko da. Zinema film berri eta arrakastatsuenak emango dira kultur-etxean haur eta helduentzat aretoetan baino askoz merkeago

Udazkeneko programazio zabala aurkeztu zuten ostiralean Udaleko Kultura saileko arduradunek. Batetik ostegunetako filmak igandean errepikatuko direla ziurtatu zuten, eta bestetik azaroko antzerki eta dantza emanaldi nabarmendu zituzten. GluGlu konpainiak prestatu duen "Su Txikitan" bake-negoziatioei buruzko lan berri berria eskainiko dute euskaraz eta gazteleraz hilaren 10ean eta 29an hurrenez hurren eta Lasarte-Oria Dantzan programaren barruan Kukui taldearen Otehitzari biraka 16an eta Eliraide taldeak "Ninika" 17an.

Jon ALTUNA IZA

Kultur saileko arduradunek hiru ataletan banatu dute udazkeneko programazioa, zinea, antzerki-dantza eta liburutegiko ipuin kontaketa, eta bestalde, herritarren erantzunari buruzko zenbait datu ere eman zituzten ostiralean kultur etxean.

Kultur etxera zinema filmak ikustera gero eta herritar gehiago hurbiltzen dela eta beraz ostegunetako pelikula igandean ematen jarraituko dutela aurreratu zuten.

Batez ere, zinema Lasarte-Orian aretoetan baino askoz merkeagoa dela azpimarratu zuten eta sarrerak internetez hartuz gero are merkeagoa: haurren zinemak 3.40 balio du, ostegunekoak 4,40 eta igandekoak 5,50 baina hurrenez hurren 3, 4 eta 5 euro lasarteoriararen webaren bidez erosita. 2012. urteaz bukatu aurretik 2011. ikusle

kopurua berdindu dela nabarmendu zuen Boris Nogalesek.

Antzerkia eta Dantzari dagokionez, herriko taldeek emanaldiak proposatzeko sortu den mahaiaren osaketa aipatu zuen Boris Nogales zinegotziak: herriko taldeek proposatu dituzte, aurten programatu diren antzerki eta dantza emanaldi batzuek. Hauek izan duten erantzunari buruz datu baikorrak eskaini zituzten prentsaurrekoan, 2012. urtea amaitzeko 3 hilabete falta direlarik, iaz baino 800 lagun gehiago izan dira emanaldietan, 7.305 pertsona 2011n, 8.144 2012ko lehen 9 hilabetetan.

Liburutegia ipin kontalariak Liburutegiko egitarauari dagokionez, Izaskun Urdanpilletak azaldu zuenez, ondorengo hilabetetan Pello Añorga eta Kontu Kantoi taldeko ipuin kontalariak hiruna saio egingo dituzte, lehenengoak 4-5 urtekoentzat eta Kontu Kantoi 6-

8 bitartekoentzat.

Arratsaldeko 6etan izango dira saioak, behin hasita atea itxi egingo da eta gurasoak kanpoan geratuko dira.

Bestalde, hilaren 1etik 15era Medicus Mundi taldearen erakusketari informatiboa jarriko da Kultur Etxeko erakusketari aretoan, hain juxtu Sexu eta Ugalketa eskubideei buruzkoa.

Datu baikorrak

2011 eta 2012ko datuak konparatu dituzte prentsaurrekoan. 35 pelikula eman dira 2012an eta 2992 sarrera saldu dira, 3.239 2011 osoan. Antzerki eta dantza 32 emanaldi egin dira, eta ikusle kopuruak gairitu du 2011koa, 8.144 egon dira aurten eta 7.305 2011n. Bestalde, 1.370 ikusle egon dira sei musika-emanaldietan, iazko 1.212ak baino gehiago beraz.

Urriaren 3. adinekoen omeneko astea eta Semblante Andaluz elkartearen kultur astearekin batera, eskainiko diren zine pelikulak nabarmendu dituzte, The Artist, Brave, Ice Age 4, Gartzot eta Madagascar 3. Aipagarriak dira bestalde, hilaren 6an IX akordeo jaialdia, eta 27ko "Azken Portua" Kukukak proposatuta antolatuta den haur antzerki erakargarria.

Udazkeneko programazio osoa www.txintxarri.info web orrialdean ikusi daiteke.



KUKUKA

Ikasturte berriaren hasiera ekitaldia

Ikasturte hasiera ikasle eta lagunekin ospatu nahi izan zuten Kukukako kideek. Horretarako antzerkitxo bat prestatu zuten irakasleek ikasleekin batera euren lan egiteko modua ikasle berri eta familiei erakusteko. Bukaeran familia argazkia atera zuten. Aipatzekoa da deialdiarekin bat egin eta gehienek jantzita eraman zutela Kukukaren urteurrenako kamiseta berdea. Aurten ikastaro berriak eskainiko dituzte eta talde berriak ere sortu dira. Guztira 700 ikasle inguru izango ditu aurten ere herriko antzerki eta dantza eskolak.

ELKARTEAK

Semblante Andaluz-en aste kulturala

Herriko Semblante Andaluz elkarteak bere hamargarren Aste Kulturala ospatuko du. Ostirala, larunbata eta igandeko hainbat ekintza prestatu dituzte.

Ostiralean 18:00etan elkartean gozogintza ikastaroa egiteko aukera izango da. Ondoren luntxa bazkide eta udal ordezkariarekin eta elkartearen historia kontatzen duen bideo emanaldia egingo da. Larunbatean haurrentzako ekintzak izango dira Golf plazan eguraldiak laguntzen badu. 11:00etan toka txapelketa, 12:00etan tren maketen erakusketak, 13:00etan bazkari herrikoia egingo da eta 16:00 mus eta tute txapelketa. 16:30ean berriz, 3 eta 8 urte arteko haurrentzako marrazki lehiaketa izango da Golf plazan, 17:00etan Jalgunekin buruhandiak eta ondoren txokolatada egingo da. 17:45ean Erketzen emanaldia eta 19:00etan Rock kontzertua O'Club taldearekin. 21:30ean ikuskizun-afaria izango da "Moito" ikuskizunarekin elkartean bertan eta honetan bazkide eta ez bazkideek har dezakete parte. Aurrez txartelak Udaberri tabernan izango dira salgai. Igandean berriz, 14:00etan bazkaria elkartean bertan eta 18:00etan elkarteko talde ezberdinen emanaldiak izango dira. 19:30ean gitarra elektriko baten zozketa egingo dute.

KONTZERTUA

Zero Setteren jaialdia larunbatean

Larunbatean, urriak 6, arratsaldeko 19:30ean, Lasarte-Oria IX. Akordeo jaialdia ospatuko da Manuel Lekuonan. Zero Sette akordeo orkestrak udalaren laguntzarekin antolatzen duen jaialdia beste urte batez akordeoien doinuez beteko du Manuel Lekuonako areto nagusia. Aurtengo edizioa, berezia da herriko orkestrarentzat, izan ere aurten 25 urte bete ditu. Zero Setteko arduradunek aipatu dutenez, "ekitaldia 25 urteurren ospatzeko antolatu dugun bigarren kontzertua da".

Zero Setterekin batera, Isidro Larrañaga akordeo orkestrak, ILLUMBE akordeo orkestrak eta Lasarte-Oriako Udal Musika eskolako musikariek parte hartuko dute. "Bi orkestrek lehenengo postuak lortu dituzte nazioarteko txapelketa ospetsuetan" azpimarratu dute. Jaialdia joan nahi duten herritarrek bi aukera dituzte sarrerak eskuratzeko. Batetik Manuel Lekuona kultur etxeko leihatilan eskuratu daitezke 3,20 eurotan. Bestetik www.lasarteoriararen.eu orrialdean ere salgai daude 3 eurotan. Zero Settek herritarrek gonbidatzen ditu jaialdia hurbildu eta musikaz gozatzera.

AMALUR

Ikasturte hasierako emanaldia

Amalur trikitixa eta pandero eskolako ikasturte-hasierako jaialdia antolatuta du Okendo Plazan urriaren 5ean, ostirala. Arratsaldeko 19:00etan hasiko den jaialdian trikitixa eta panderoaz gain, kitarraren doinuek, kanta herrikoiak eta perkusio edo kolpe tresnak entzuteko aukera ere izango da. Aurretik ordea, txistulariak arituko dira herriko kale eta txokoak girotzen. Beraz, jaialdiaren helburua Amalur eskolako ikasle eta irakasle gazte-biziek urte guztian zehar lantzen dutena erakutsi, kaleratu eta zabaltzea izango da, kurtsio berriari hasiera ematearekin batera.

FUTBOLA.-

Ostadarrentzat denboraldiko lehen derbia

1. Erregional mailan Texas Lasartearra erraz menderatu du Ostadarrek, 4-1; eta Euskal Ligako kadeteek belarrondoko handi samarra jaso dute Realaren aurkako partiduan, 6-0 galdu ostean

Espainiako Ligan Real eta Athletic-ek jokotutako partiduaren bihamunean, herriko derbia izan genuen atzo goizean Zubietako instalazioetan. Joxean Beldarrainek entrenatutako Ostadar taldea Koldo Ageitosen Texas baino gehiago izan zen zentzu guztietan. Euskal Ligako kadeteek berriz, ligako bigarren porrota jaso zuten Realaren aurkako partiduan eta 1. jubenilek, azken minutuetan sufrituta izan bazen ere, garaipena eskuratu zuten Herrerako Sporting-en aurka, 4-3ko emaitzaz.

Aurreko astean euren norgehiagokak irabazi ostean, Ligako bigarren partiduan elkarren aurka aritu ziren 1. erregional mailako herriko bi taldeak.

Lehen zatian, pareko

Ostadarrek baloiaren jabetza edukiz hasi zuen partidua, eta lehen ordu laurdenerako 1-0

jarri zen aurretik Ander Zulaiak sartutako gol bati esker, Alexander Paino erdilariaren pase sakon bat baliatu eta gero.

30. minutuaren bueltan ordea, Asier Lizarra Texas-eko aurrelariak Aitor Lizarazu Ostadarreko atezainaren hutsa aprobetxatu zuen baloia sareetara bidaltzeko. Atezain hernaniarra baloia astintzen

saitezean, apoioko oinean jo eta baloia ate aurrean gertatzen, nahierara sartu ahal izan zuten gola txuri-urdinek.

Halere, luzapenean sartuta, gol psikologiko deiturikoa egin zuen Ostadarrek. Joseba Rekondok ezker hegaletik baloia lapikoan jarri eta Jon Gonzalez aurrelariak buruz orraztuta sareetara bidali zuen baloia zaleen eromenerako.

Bigarrenean, Ostadar gora

Bigarren zatiak oso bestelako itxura izan zuen. Ostadar nagusi izan baitzen hasi eta buka. Aldageletatik zelairatzen, joko-erritmoa zertxobait igotzea lortu zuen Beldak eta hor egon zen partiduaren gakoa.

55. minutu inguruan, Joseba Rekondok ateratako kornet bat probestuz, Iñaki Castro erdiko-atzelariak gola sartu

zuen. Jokaldi nahasi samarra izan zen, kornerra lehen zutoinera ateratu ostean, aldaratzea Rekondo berari iritsi eta bigarren erdiraketa horren bidez sartu baitzuen gola Iñaki Castrok, sendotasunez area txikian buruz errematatu ostean.

Hortik aurrera, Texas-Lasartearrak aukera bat edo beste izan bazuen ere, jaun eta jabe izan ziren urdin-belztak. Horren erakusgarri partidu amaizteko 25 minutu faltan Ander Zulaiak egindako bigarren gola. Unai Ituarte zelairatu berriak hegalean zegoen Noriegari pase ederra eman, eta honek ahoko zuloan utzi zion baloia Zulaiakari plazer hutsuz erremata zezan. Norgehiagokak utzi zuen golik politena izan bazen ere, jokaldi horretan bertan, Noriegak min hartu zuen belauenean

hesiarekin tupust eginda.

Partidu amaierako 20 minutuetan ez zen azpimarratzeko moduko beste ezer gertatu, akaso, Sergio Barradori epaileak bigarren txartel horia ateratu eta honek zelaia utzi behar izan zuela derbia amaizteko 5 minutu falta zirenean. Beraz, ligan hiru puntu besterik ez badira ere, derbiatoko puntuek balio bikoitza izaten dutela esan ohi da. Itzulera izango du Texasek atzoko arantzakoa ateratzeko aukera.

Kadeteak ezinean

Euskal Ligako Ostadarren partidua txuri-urdinez tintatuta egon zen. 4. jardunaldirako bi garaipen gozo baditu ere, porrotaren garratza dastatzea egokitu zitzaion oraingoan, Real ahalguztidunak 6-0 jipoitu ostean.



Texas Lasartearra eta Ostadar taldeetako jokalariek guztiek elkarrekin talde-argazkia ateratu zuten partidua hasi aurretik.

PILOTA.-

Nesken paleta eskola berriro ere martxan

Aurten ere Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak, Lasarte-Orian nesken paleta eskola martxan jarriko du. Paleta saioak Loidi-Barrengo pilotalekuan dira eta 8 urtetik 16 urte bitarteko neskei dago zuzendua.

Iaz hasi zen federazioa, Emakumea Pilotari proiektuaren barnean, ekintza hau garatzen eta aurten nesken paleta eskola honi jarraipena eman nahi dio iazko erantzun onaren ondoren.

Izan ere, iaz ikastetxeetan egin ziren paletako sustapen jardueretarako 9 neska kadetez osaturiko taldea sortu zen gure herrian. Orain beste mailako taldeak egiteko asmoa du Federazioak.



Egunak eta orduak

Honela, mailaren arabera ordutegi derberdinak eskainiko ditu Federazioak.

LH3-6 mailako neskek bi aukera izango dituzte, bata asteazkenetan 17:15etik 18:15era eta bestea, ostegunetan, 17:15etik 18:30era.

Bestalde, DBH mailako neskek ostiraletan, 16:30etik 18:00etara izango dute bere saioa.

Izen-ematea

Beraz, paletan ibili nahi duten neska guztiei ekintza honetan izen-emateko aukera eman nahian, sustapen ekintza eta izen-ematea lehenago egitea erabaki dela jakin arazi du Federazioak.

Izen-emateko federaziora deitu, 655 719 492 zenbakira edo ikastetxean galdetu heziketa fisikoko irakasleari. Azken eguna urriaren 3a izango da.

LABURRAK.-

Ehiza eta arrantza saribanaketa

Buruntz Azpi elkarteak urtero legez ehiza eta arrantza sailtako saribanaketa egingo du urriaren 6an, 20:30etatik aurrera.

Atal hauetan nabarmendu diren bazkideei saria emateaz gain, Antonio Carrasco ehiztari beteteranoari omenaldia egingo zaiola azaldu digute elkarte kideek.

Eta afari berezia antolatu dute elkarte sukaldariak: urdaiazpiko iberikoa, gula eta endibia entsalada, legatza kokotxak eta txirlekin, entrekota saltsan txanpiekin, postrea, kafea eta kopa.

Afari prezioa 25 eurotako da. Honetaz gozatzeko elkarteko egoitzan izen-eman behar da urriaren 4a baino lehen. Buruntz Azpiko bazkide eta senide guztiak daude gonbidatuak.

OHARRAK.-

Ehiza postuen zozketa

Ehiza garaia hasi da eta Buruntz Azpi elkarteak Benedika mendian dauden postuen zozketa egiten du egunero bere egoitzan, 20:00etan. Gogoratu ehiza baimena izan behar dela zozketetan parte hartzeko.

Ostadarreko Futbol Eskola

Ostadar Futbol Eskola urriaren 3an, 18:45ean, hasiko da lanean Michelinen. Entrenamendurako arropa eraman behar dute gazteek.

Agenda

Astelehena 1-Astelehena 8

Zaharren omenez

Lasarte-Oriako pertsona adinduek ekin-tzaz betetako aste beteko egitaraua dute. Zaharren Omenaldiko astea dela eta, Biyak Bat elkarteak Udalak lagunduta hainbat ekimen antolatu ditu. 65 urte baino gehiagoko herritar guztiak daude gonbidatuak ekintzetan parte hartzera. Honetaz gain, urriak 8, astelehena Biyak bat elkarteko 34. urteurrena ospatuko dute.

Egitaraua:

Astelehena 1, Isla plaza
Toka, igel eta pote txapelketa.
Egoitzan
Mus txapelketako finala.



Asteartea 2, egoitzan

Sun Magoa eta Adolfo Perez-en baka-
rrikketak.

Asteazkena 3, Okendo plaza

Gimnasia eta aerobik taldeen erakusketa.

Osteguna 4, Okendo plaza

Semblante Andaluz-en emanaldia

Ostirala 5, Manuel Lekuona

"Melocotón en Almibar" antzezlan, herriko Lan eta Lan taldearen eskutik.

herriko Lan eta Lan taldearen eskutik.

Larunbata 6

Ibilaldi neurtua herrian zehar.

Egoitzan

Dantza txapelketa.

Igandea 7, San Pedro elizan

Meza

Manuel Lekuona

Biyak Bat-eko abesbatza eta Zero Sette akordeoi orkestraren emanaldia

Kirol gunean

Bazkaria eta dantzaldia

Astelehena 8, Ama Brigitak

Meza eta luntxa

Egoitzan

Urrezko ezteien opari banaketa, merienda eta dantzaldia.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Urria osoa

Sancho Pereg artistaren margoak ikusgai izango dira.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Astelehena 1-Astelehena 15

Medicus Mundi elkartearen argazki erakusketa ikusgai izango da.

Bestelakoa

UDALETXE BERRIKO ARKUPEA

Astelehena 1, 20:00etan

Alboka Abesbatzak entsegu irekia egingo du.

LANDABERRI BHI

Ostirala 5, 18:00etan

Dinbi Banda batukadaren entsegu irekia egingo du.

OKENDO PLAZA

Ostirala 5, 19:00etan

Amalur Trikiti eta pandero eskolak ikas-turte hasierako jaialdia egingo dute.

SEMBLANTE ANDALUZ ELKARTEA

Ostirala 5-Igandea 7

Semblante Andaluz elkarteak X. Aste kulturala antolatu du.

Ostirala 5

Gozogintza ikastaroa, udal ordezkari eta bazkidekin luntxa eta bideo emanaldia.

Larunbata 6

Txapelketak, meentzako txokolatada, buruhandiak, tren maketa erakusketa, musika eta umorea.

Igandea 7

Herri bazkaria eta elkarteko taldeen emanaldia.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Osteguna 4, 21:30ean

Ostegun zinea atalaren barruan, Oken-do Zinema taldearen eskutik, "The Artist" filma eskainiko da. Sarrerak leihatilan, 4,40 euro; internetez, 4 euro.

Igandea 7, 17:00etan

Haurren zinea atalaren barruan, "Brave" marrazki bizidunetako filma eskainiko da. Sarrerak leihatilan, 3,40 euro; internetez, 3 euro.

Igandea 7, 19:00etan

Helduen zinea atalaren barruan, Oken-do Zinema taldearen eskutik, "The Artist" filma eskainiko da. Sarrerak leihatilan, 5,50 euro; internetez, 5 euro.

Musika

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata 6, 19:30ean

Zero Sette akordeoi orkestrak antolatutako Lasarte-Oria IX. Akordeoi jaialdia. Isidro Larrañaga akordeoi orkestrak, ILLUMBE akordeoi orkestrak eta Lasarte-Oriako Udala Musika eskolako musikariak parte hartuko dute. Sarrerak

leihatilan, 3,20 euro; internetez, 3 euro.

Bertsolaritza

ARRIESKALLETA ELKARTEA

Ostirala 5, 21:00etan

"Hitzarekin jolasean musikaren koloretan" bertso afaria antolatu dute Arrieskalleta elkarteak, Ttakun kultur elkarteak eta Lasarte-Oriako Bertso eskolak. Jon Maia eta Uxue Alberdi bertsolariak eta Eñaut Elorrieta musikaria izango dira honetan. Afariko tiketak Jalgi tabernan daude salgai, 25 euro-tan.

Herritarren txokoa

Euskararen VIII. Maratoiko kamisetak salgai

Urria gerturatzeko doa eta dagoneko Euskararen Maratoirako kamisetak salgai jarri dira Ttakunen. Zortzigarren edizio honetako leloa Bihotzetik Plazara eta irudiak apaintzen ditu kamisetak.

Helduentzako eta haurrentzako neurritan atera dira kamisetak. Helduenak 15 eurotan daude eskuragarri eta umeenak berriz 10 eurotan.

Erketz Dantza Lagunak

Erketz Dantza Lagunak taldeak jakinarazten du dantzatzeko ikasteko saioak hasi dituztela.

Taldea ez da erabat osatu, lekua dago eta interesatuek entsegu egunean, asteartean bertan Zumaburuko ikastolako gimnasioan 20:00etatik 21:30era azaldu eta izena eman beharko dute.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, lau betaurreko graduatuak, eguzkitako betaurrekoak, hiru-

mugikor, txandaleko jaka bat eta txirinda bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiak eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Iradokizunak Udalarri

Lasarte-Oriako Udalak herritarren parte hartzea sustatzeko iradokizun orrialdea duela gogora arazten du. Orrialdea Udaleko harreraren dago eskuragarri, baita www.lasarte-oria.org orrialdean ere.

Idatzi ostean, Udaletxeko harreraren dagoen postontzi berdean utzi edo iradokizunak@lasarte-oria.org helbide elektronikora bidali behar da orrialdea.

Hirigintza saila Ganbo kalean

Lasarte-Oriako udalak gogora arazi nahi du Obrak eta Hirigintza sailaren zerbitzua publikoarentzat irekita dagoela Ganbo Kaleko 1. zenbakian.

Sarean

Euskara ikasteko aplikazioak

Euskara ikasteko modu berriak eskaintzen dira sarean eta smartphone-tara ere iritsi da aukera hori.

Elhuyarrek euskara ikasteko smartphonetarako aplikazio berria, kxo! Ikasi euskara/ Aprende euskera/ Learn Basque/ Apprenez le basque, garatu du.

Android edo iPhone plataformetan erabili daiteke eta euskarako lehen hurbiltze bat izan nahi du.

Helburua euskaraz ezer ez dakienari edo euskaraz apur bat baino ez dakienari ohiko egoeretan euskaraz komunikatzeko tresnak eskaintzea da. Horretarako, entzuteko ariketak, mintzatzeko ariketak eta irakurri eta idazteko ariketak erabiltzen ditu.

Era berean, iPhone eta iPad -etarako Hitzapp aplikazioa agertu berri da. 3000 hitz ditu, bakoitza bere itzulpen eta ahoskera egokiarekin, eta ariketa eta jokoan bidez ikasteko aukera ematen du, besteak beste, suga, hizki-zopa eta hitz hautsiak.

Sortzaileek diotenez, Unibertsitaterako sarbide-probak edo EGA prestazio laguntzeko balio omen du, baita euskara eta kulturari buruz gehiago jakiteko ere. Baina interfazea gaztelaniaz dago.

kxo! Android Market eta App Store dendetan dago salgai eta Hitzapp ere App Storen aurki dezakezue. Baina dudatan daudenek, kxo!-ren doako demoa deskargatu dezakete eta hauek bilatzen ziur doaneko beste aplikazioen bat aurkituko dutela.





Aterpeako Merkataritza elkarteko kideen partetik

Arkupe taberna, Aritza mertzeria, Arregui elektrizitatea, Martinez Multimedia informatika, Maite Betelu, Bideo Lagunak, Ekain liburudenda, Mauxaren denda, Goxogi, Iturbe oinetakoak, Izarra bitxitegia, Patxi Larrañaga, Lizarri optika, Maiane perfumeria, Martin Berasategui jatetxea, Maya, Nagues, Okela Harategia, Olmi, Ormazabal Loradenda, Abreu, Parafarmazia, Sukoa burdindenda, Ventanas San Miguel, Zumaburu liburudenda, Carrefour Express, Aldaz Hertz Klinika eta Urruzola Mertzeria

Eskerrik asko

V. Stock azokan

izan zareten guztioi !!!

euskararen 8. maratoia

bihotzetik plazara

Zatoz Udaletxe berria ezagutzera!!



19 egun
falta dira

www.euskararenmaratoia.com

Lasarte-Oria 2012ko urriaren 20^a eta 21^a

